


Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Tere Arrizabalaga Alegria

*Ondarroa,
Bizkaia (1936)*

Aurkibidea



Biografia



1936ko urtarrilaren 19an sortu zen Ondarroako Santa Ana baserrian. Beraien etxea elizaz Berriatukoa da eta udaletxez Ondarroa. Aita bertakoa zuen eta ama Berriatukoa. Umetan Gorozika auzoko eskolara joan zen eta Ondarroako klase partikularretara. Mojetan ere ibili zen eta bertan ikasi zuen josten 20 urterekin; etxekoentzako praktikak egiten zituen. Bere neba bat pilotari profesionala zen, "Santa Ana" izenez ezaguna, eta Terek egiten zizkion praktikak. Baserriko lanetan aritu izan da beti eta oso ondo ezagutzen du mundu hori: egunero Ondarroako Berdura plazara joaten ziren eta sagardoa egiten zuten etxean. Errenteria auzoko Etxarrenera ezkondu zen eta 3 sema-alaba izan zituen. Hogei urtetik gora Gerrika auzoko Beitia baserrian bizi izan zen. 2007. urtetik Lekeitioko Uribarren Abaroa egoitzan dago.

Zintak

OND-010

- **Proiektua:** Lea-Artibaiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2010-07-15
- **Iraupena:** 86 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Conde, Olaia - Larrañaga, Aitor - Kortazar, Nerea - Goiria Mendiolea, Nerea

Pasarteak

1. Santa Ana baserria lehen ermita zen

- **Erref:** OND-010/003
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:01:33. **Bukatu:** 00:04:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aita bere jaiotetxekoa zen, Santa Anakoa, eta ama Berriatukoa. Santa Ana baserria udaletxez Berriatua da eta elizaz Ondarroa; hala ere, beraiek Ondarroan egin dute bizimodua. Lehenago ermita bat zen eta bere aitaitaren aitak etxe berria eraiki zuen ondoan. Etxe-ermita hori zelakoa zen azaltzen du. Saihesbidea egiteko bota egingo dute.

Transkripzioa

- Ama ta aitte nungoak auki zenduzen zuk?
- Ba bixek egixe esateko, atte Berritxuku, oseake aiuntamentuz eta elixakuz Ondarrun; eta ama Berritxuku Lakagoiku eta aitte zan Santanaku.
- Eta zu ze jaixo ziñen zu baserri baten-edo?
- Bai, bai baserrixan Santana, baserrixe Santana, “caserío Santana”, lehena ermitti zen. Bai ermitti zan, ta gero ba hortik Gipuzkutik esaten ben lehengo antziñekuk esaten ben, etorri zile ba hortik Arrizabalaga uste dot zala eta han jarri zin bizimodu eitten, ze elixan imajena euen bakarrik, Santana eta ordun zera ipiñi eben, oseake bizimodun jarri zen hantxe, hantxe bixi ixan zin ta gero albur etxe barrixe ein eben. Etxe barrixe ein eben gure attitten aittek eta ordun ba lio, oseake ermitte “se quedo sin nada, osea que como si no sería nada”, baiñe haxe zan, “era caserío Santana” baiñe ermitti zan, lehen antziña.
- Ordun zer zan itxuraz kanpo ermittiena zan-edo?
- Bai bai bai, ta gero ein zen bat temajanie ein de itxuri ermittiena kendu ein zan porke harek eukan harlaundozko harlaundozko eskillarak eta koru be baeuken eta gero holako ba ez dai /eztai/ zer eukan beste ezer. Pentsaten dot imajena handiko partera euela, ze hemetiko partetik sartun eta handiko partera, Berritxu o Ondarruko partera begire. Eta eukezen horrek izaten die ba bentana txikixek harrizko, harrixek harrizkuk izaten diñek harek aukitten zittuazanak /aukitxetxuzanak / atziñakuk halakoxik eukezen: bi goiko partetik, bi beheko partetik eta hango partetik, Ondarruko partetik, beste bi, “yo que sé”. Ta portala edo etxi ati ataixe ondion hantxe da ataixe. Ati lehenaku ipiñitte, ba hoixe. Ta gero on diputaziñoi, zelan doien barianti, “se ha quedau sin nada osea que” pentsaten dot bota eingo dabela ze anaxi handik urten ein bir izan eban eta goiko partin etxi ein.
- A bai bota eingo dabe?
- Bai, urten eben.
- Baiñe ongo barianti itzeko?
- Neure anaxi dauke goiko partin etxi einde kamiño goiko partetik.

2. Eskola eta partikularrak

- **Erref:** OND-010/007
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:05:36. **Bukatu:** 00:07:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolara egun guztirako joaten ziren etxetik eramandako jatekoarekin. Bazkalosteko harrikoa beraiek egiten zuten. Eskuz bordatzen irakatsi zien maistra batek. Eskolatik irten ostean, Ondarroara joan zen eskola partikularretara: matematika, aritmetika... ikasi zituen bertan.

Transkripzioa

- Eskola jun eta gero ba egun guztirako juten giñen, bertan bazkaldu, bazkarixe eruten gendun etxetik eta bertan bazkaldu eta eitten gendun eta geuk eitten genun fregaue eta han ba lagun asko, ixe ehun lagun egoten zin, bai maistri zan ona-ta, erakustalli zan ona-eta. Ordun juten zin Itxuribatxirrik be bai, Madalenatik be bai juten zin eta hainbeste jente juten zan hara. Bai eta gero bat alde ebanin, beste maistra bat etorri zan, baiñe harek ez zan eskolan holako erakustaille famaue eta eitten ban josten erakutsi, josten bordetan, baiñe eskuz, hantxe ikasi neban nik bordetan, baiñe eskuz. Eta bueno, gero handik urten gendunin, ba etxea eta gero Ondarrure partikularrea. Baiñe partikularrin ikasten gendune gexen gexen haxe.

- Eta ze partikularrea?

- Antzomendiñin zen maistra batzuk euezen, aitzak bixak euezenak bixak zin. Ondarrukuk zin maistrak.

- Ta zelan esan dozu?

- Antzomendiñin. Antzomendiñin euen terraza bat euren auzoan eta euren taberni eta horrek zin aitzak hainbeste aizta zin, zazpi aizta-edo zin. Eta bat zan maistri, baiñe gogor, ona zan. Eta haretzek erakutsi oskun / erakutsiskun / bastante matematikasak eta beste gauzarik ordun ez zan, gexen bat zan matematikasak, ze guk ez genun "sociales" ta horrelako gauzak ixebez, bat e osake, gexen gexen matematikas: kontuk ataten ta hoixe. Ta ni [...] enfin aritmetiki problemak azkeneko ordun, osake danak pasau neban eta esan ostan /esastan /: "yasta, amatixu dozu zuk".

3. Prakak josten

- **Erref:** OND-010/008
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:07:33. **Bukatu:** 00:09:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Mojetara joan zen josten ikasten, lehendik zekiena hobetzeko. Etxean laguntzeko jostun lanetan hasi zen 20 urte ingururekin; gizonezkoentzako prakak egiten zituen, "pantalonera". Anaia pilotaria izan zuen eta hari ere berak egiten zizkion prakak. Etxetik kanpo ezin zuen lanik egin baserrian laguntasuna behar zelako egunero plazara joaten baitziren.

Transkripzioa

- Ta gero ba "Mojetan" ostea be josi, ta josten ba han be bordetan, korti hartzekun, baiñe bordetan. Eta gero handik be etxin be bakizu biharra gero etxin be lagundu ta ein biharra ixaten zan eta ordun, ordunhasi nitzen josten. Josten baiñe bastante urtikin, oseake hogei urteaz edo hasi nittan josten eta korti hartu neban eta gero pantalonera ostabe. Eta pantalonera

ba etxin eitten nittuzen prakak eta danak, gixonezkuntzako be bai, neuk josten nittuzen, neuk josten nittuzen. Goxin zortzi t'erdixetan hasten nitzen josten, eta lehena barakixu ebillak eta atzin eruten zittuzen prakak eta konplikau zan. Konplikau ez zan, biharra ein bir zala gexa eta harek josten nittuzen danak, lau gixonezko euzen etxin. Eta anaxi be pelotarixe zan eta pelotako be neuk etten nittuzen prakak eta danak. Bai, josten ondo ikasi neban.

- Dendantzat eta ez zendun josten??

- Ez, ez, hori ez neban ein, hori ez neban ein, etxeako bakarrik. Ordun momentun ein izen baneu, baiña baserrixen be laguntasune bir zen ze eunin eunin plaza jun bir ixaten gendun. Eta plazako gauzi preparau ein bir ixaten zan beti. Eunin-eunin plaza karruaz eta kaballuaz, eta plaza eunin-eunin.

4. Anaia, "Santa Ana" zestalaria

- **Erref:** OND-010/013
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:14:23. **Bukatu:** 00:17:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

<p>Bere anaia zestolari profesionala izan zen, "Santa Ana" izena erabiltzen zuen, jaiotetxekoa. Argoitia izan zuen irakasle. Kirol garestia zen, baina handik eta hemendik lortzen zuten beharrezkoa. Arropak Terek josten zizkion. Bere senarraren anaia era pilotaria zen.</p>

Transkripzioa

- "Santa Ana" pelotari oseake. Ixena "Santa ana" de hecho, etxian ixena ipiñi otsen. Eta urteten dau ordenadorin, esan ostan /esastan/ lehengusiñik urteten dabela, zerin, ze ixeten da hori? ordenadorin, baiñe... hamen ez dakau on, Interneten urteten dabela.

-Zela hasi zan zure nebia pelotan? ze hasi zan pelotan umetan zure nebie?

-Ez, ume-umetan be ez zan hasi, gerotxua hasi zan. Ta ondo, osake gorputz ona eukela ta ikesi leikela, aitte be enpeiñau ein zen. Markiña juten zan Argoitiana eta baietz, ein leikela, pelotaixe ixan leikela ta segiteko, eta halantxeik ba segidu. Baiñe ha gazte-gaztetaik nahi dotsut esan ez zan, nahi dotsut /nahitsut/ esan, ha afiziñoi ez eukan. Bera bera izengo zan berez izen bazan, mekaniku edo pilotu edo halako gauza, osake zera izengo zan.

- Argoitiagaz ikasi ban?

- Argoitia zan, zera, entrenadori.

- Eta ze ibiltzen zan ba, parejaka olgetan edo bakarrik edo?

- Kineletan jokatzan dabe zerin Ameriketan, baiñe gero parejan. Baiñe kineletan irabazten dau horrek gehixen bat, dirurik gehixen kinelatan irabazten dabe.

- Zure etxin eon zan diroik zestak erosteko edo baten batek emoten otson ?

- Bai eoten zan eta ez pentsau, kostaten zan koastaten zan ajentzixati ordun. Pentsa, handik eta bera ein arte apur bet, bai.

- Karue da-

- Bai, gero ta karua, nik pentsaten dot. Erropak be neuk josten neutzazen, baiñe behintzat ein gentsan ahalegiñe.

- Zapatillak be emon eitten otsezan ala?
 - Ez, ez, erosittakuk zapatillak-eta.
 - Zuek parakien jente asko ibiltxen zan zestan, ezta?
 - Bai, Berritxun-ta. On be famauek daz Berritxun. Bereziartua-edo ez dai zein dan famaue da, ontsungun be periodikuk ekarri ban. Eta ostabe da kanpeonatu pentsaten dot Jai Alain, Biolbon dauela pentsetan dot kanpeonatu. Eta gero beste bat, familixan zan nire gixonan anaxi pelotarixe eta ha bai, gazte-gaztetatik hasittaku zan, ha be pelotarixe, Aranbarri pelotarixe. "El Cuervo" esaten otsien Markiñen, Markiñako mota bat da hori eta Deba ezkondu zan "Txapaztanekuaz" eta hil zen bera, iez hil zen bera. Ni baño hiru hilebete zaharra. Bai hil zen bera.

5. Arropak zelan garbitzen zituzten errekan

- **Erref:** OND-010/015
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:18:18. **Bukatu:** 00:21:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

<p>Tere jaio eta lasterrera, gerra hasi zen. Bere gurasoak amaren jaiotetxera joan ziren ganadu eta guzti. Lehen ez zegoen garbigailurik eta kirruzko izarak zelan garbitzen zituzten azaltzen du, ereinotza botatzen zieten. Errekara joan behar izaten zuten garbitzera. Bere amak garbitokia jarri zuen.</p>

Transkripzioa

-Zu jaixo ta seixen gerriek urten ban?
 - Seixen ta gure aitte ta amak urten bir izen ben etxetik kanpora euren baserrire ,osake aman etxa. Aman jaxotetxa. Ta gure baserrixe, Santana, geldittu zan hutsik. Hutsik baiño be, bestelaik aittitte ta amume pentseten dot bertan ixen zile, baiña ganauek, behixek eta euki zittuzen hamen, Arropaiñen. Baten batek lehengusu edo euken bittarteku eta Santanakuk eta Akitxarranekuk euki zittuazen baserri [...] zer, hamen euki zittuezen Arropaiñen gerra denporan urten ein bir izen eben bai, gerra denporan. Ta baakixu gerra denporan e, en fin, ni akordaten naz, bueno, akordau ez na eitten ezer, ze ez nitzen, ze urtebeteik be ez neuken eta zer akordako naz ba. Baiña eurek esandako gauzak, bai, bai ordun, ordun osake labadoraik eta izer be ez euen, eta gaiña useten zan ordun kirruzko izerak eta useten zin, ta horrek garbitzeko izeten zan, eukitten eben, holako bukoien moruko zerak, barriek eta ez dai zelako, esaten ban amume difuntik ez dai /eztai/ zelako arrabixok eta ez dai zer da bai dai zer ta eriñotzak bota ta ez dai zelan eitten zittuzela. Ta gero, ama difuntik ipini ban labadori, labadori zera, labadora fregadera horrek urten ben ba? Haxe, ta urten banin ba pozik, gero ba erreka jutun giñan zertzen, deslabu ebaitten ure emondakun siketi handixe zanin, ostontzin manantialak emoten ban geutzako izeteko beste, emoten ban, baiña jabonaduri eta deslabetako jun ein bihar izeten giñen. Honetan siketi zanin. Akordaten naz "el año cuarenta y siete"n edo ei ban sikete haundixe, ta ni gazti nitzen, baiña jutun giñan erreka.
 -Ordun, zuen ama modernie?
 - Bai, labadora fregaderi ipini ban, ta pozik bera. Ongo labadori ikusiko baban, ene Jangoiku!. Ta jabonaduri astin behin eitten zan, baiña aste erdixen be kanbixau nahi ixeten zan in, porke plaza ta jutun baziñen ta

iñok ikusteko ba dezente urteteko ,erdixen be kanbixau ein biher ixeten zan. Ez egunin egunin ,baiñe aste erdixen bentzat kanbixau.

6. Azpigarritan basora

- **Erref:** OND-010/016
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:21:02. **Bukatu:** 00:23:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Azpigarrirako ira behar izaten zuten eta basora joaten ziren bila, Gorozika pasata Kondebasa joaten ziren. Gerora zerrautsa erabiltzen hasi zen, baina ez da ona tintea baitu. Simaurra derrigorrean behar zen. Zaldia hartuta jatekoa eramatera joaten ziren basoan zebiltzanei.

Transkripzioa

- Eta gero ba basora be juten nitzen, osake baserridxen euezen sei behi ta bost txahala, horixe izeten zan. Eta juten giñen basora, baiña etxik berak ez euken biher dan beste basorik, basorik azpigarridxe eitzeko (...), azpigarridxe eitzeko ez eukon biher dan beste lurrik edo terrenoik, basorik. Ze euken basorik, euken basu zan egurre, egurre ebai ta sutarako eitzeko. Ordun jun biher izeten gendun Gorozike pasau ta Kondebasa, Kondebasa, kondiena ei izan, ta hara jun biher izeten zan ba zerak eitzen, azpigarrixe eitzen, ze astin jornada bat gasteten zan, eta ha eitzeko jun ein biher izeten zan. Ta simaurre, ordun simaurre biher izeten zan, ordun ez euen oingo moduen zerik nitratorik eta holako gauzaik eta simaurre biher izeten zan. Gero, ba zerri-ta hasi zen eta zerratik apur bet bakizu ganauek apur bet siku-edo eukitzeko edo garbi-edo eukitzeko apur bet, eruten zan baiña ortu barrireko txarra zan, zerrautse geuzerik txarrena da, tinttie deko-ta, "tiene tinte". Ta simaurre biher izeten zan derrigor. Ta harek biharrak hortixik urten eban, porke ni plazara jun etxa etorri ta amak bazkaridxe prest eukitzen eban, lapiko ta geuzek ipinitze. Zaldidxe soltau, atza barriro lotu, asto-otzarakin ipini, jateku ipini ta Basora jateku eruten juten nitzen. Ño! Izerdidxe ataten gendun guk zaldidxe eta bixok. Neuk be oin baiño saso hobie neuken-ta. Bai, eta haraxe erun, etxa etorri ta baten baiño gehidxa ein neban josta jun, josta be jun, ein neban baten baiño gehidxauten, bai.

7. Ganadua izan arren, plazan saldutakoarekin aurrera

- **Erref:** OND-010/017
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:23:09. **Bukatu:** 00:24:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Zaldia eta "muli" zuten, ez zuten ez mandorik ez astorik. "Muli" burugogorra eta mantsoa zela dio. Behiak eta txahalak ere bazituzten, baina plazan saltzen zutenarekin egiten zuten aurrera. Bizimodu gogorra zen, errentariak izan arren beraiek ordaindu behar zituztelako kontribuzioak.

Transkripzioa

- Ta zaldidxen ibiltzen ziñien beti? Astorik ez zenduen euki?
- Ez, astorik ez gendun euki. Muli Auki gendun, baiña ño! Terku zan muli, muli ez da ona, bueno ona ez, biharreako bai e! biharreako fiñe da, bai. Ganaduen aurrin-eta tiretzeko-ta ona da mandu, edo muli, mandu ez zan muli zan. Eta baiñe kaballue eukitzen gendun jeneralin, kaballo baltza, txarra, gaiztu zen. Bakizu ze eitzen eban? Ikusten ebanin arkadi, arkadi handidxe euela-edo ikusten ebanin, pentsau animalidxe zelako listue, juten zan atzeara atze-atzera, ta inddar guztidxeaz tiretzen eban, ta zoze, apurtu edo zozer eingo eban, marki da hori gero e! ta ez gakon hori kostunbri juten gero e! ez terko [...]. Ostantzien ona zan e, mantsu zan, baiñe.
- Ta ze beste, ganaue-edo ze euki zenduen ba?
- Sei behi ta horixe, bost txahal izeten zan. Baiñe ordun esaten notsan nik aitte difuntuai: "baserridxe ondo ibiltzeko, hillin txahal bat saldu biher dogu aitxe, ostantzien ez dau balidxo", esaten notsen, ze sueldorik, eskerrak plazaku, egunin egunin egunin egunin plazaku, ba handik eitten zan asko. Bestelan, ze ordun kontribuziñoi be pagau norberak pagaten ta erreteruk giñen, ta kontribuziñoi be norberak pagaten eban, hori gogorra zan e! Eurek uzabak pagau biharreñin kontribuziñoia erreteruk pagau biher izeten eben, bai guk erreteruk geuk pagaten gendun. Gero, aparte ba urteko zera.

8. Ogia etxean egiten zuten

- **Erref:** OND-010/018
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:24:56. **Bukatu:** 00:27:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Etxeko errenta diruz ordaintzen zuten. Gerraostean, garia entregatu behar izaten zuten udaletxean. Ogia etxean egiten zuten: lehenengo, labeko sua; eta, gero, sukaldean egiten zuten. Ogia zelan egiten zuten kontatzen du. Terek ez zuen ezagutu labeko sua.</p>

Transkripzioa

- Ta erreteru bizitzen ziñienien, diruz pagetan zenduen?
- Diruz, diruz, guk diruz pageten gendun. Gero eon zan unekara bat gerraostin, garixe entregau ein bihar izeten zana aiuntamentuetan, ez dai / eztai/ dakizun, entregau ein bihar izeten zan, ez dai / eztai/ zemat, ez dai / eztai/ zemat ganera izeten zan entregeti bentzat, ta gero kendu ban hori baiñe, gauza asko izeten zan, osake zati handixe kentzen gakon norbera izeteko. Gero norberak eruten eban hori, garixe eta errota ta errotan zertute, ogixe be etxin eitten gendun. Lehena-lehena labako ogixe eitten gendun, baiñe gero ez, gero koziñan eitten gendun.

-Ta labie ze euki zendun zeuena ero auzokoana?

- Ez, ez, ez etxeku. Eurek euki ben, gurasuk aurretik euki ben, labako sue eitten eben. Baiñe gero ba, koszñi ipini zanin, ba koziñan, ta ondo, ondo urteten oskun. Ze labadori, eo lebaduri, ez kendun usetan lehelengo lehelengo apur bat, hasierako. Baiñe gero ogixe eitten danin, apartau beti zati bat, ta gero haxe ixenda, bera lebaduratzat eitten dau berak madrik eitten dau. Bexperan ipini arrotzen eta gero ogixe bixamonin eta gero arrotu eta gero laban sartu. Ta ogixe asko gozuaue eta hobiaue.

-Eta labako sue zelan eitten zan-edo?

- Hoixe ez naz akordaten ni. Ze guk e amasaran eitten gendun, etxeko euen armaxo bat ta gero euken tapi ta amasari. Ta hantxe amasaten gendun goxan, norberak eitteko etxeako. Ta beste gauzaik ez naz akordetan lehengo horrelako ize ez dekot akordun. Labako sue eitten ebenik ez naz akordaten, ze hori handixaue izeten zan porke pentseten dot astebeteako edo hamabost euneako edo eitten bela. Nik ez daitx ordun pertsonak hazi be zelan eitten zin, ze akordaten naz, beatzi seme-alaba zin aureauako aldikuk, attittan anaixa-arrebak eta, zelako zelako pertsona haundixek. Harel zelan hazi be. Ta gu ixikoaz hazi ta hazi ogixaz, ogixe ta esni ta artu. Artu ta esni morokille be bai. On jaten ez dan asko. Ta asko hobiaua.

9. Baserrian ere gosea

- **Erref:** OND-010/019
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:27:39. **Bukatu:** 00:29:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Bere etxekoek gerra sasoian eta gerraostean gosea pasatu zuten, nahiz eta baserritarrak izan. Arroz asko jaten zuten eta askotan gauez egin behar zituzten lanak, inork ez ikusteko. Estutasun larriak bizi zituzten.

Transkripzioa

- Ordun, zuk baserridxe eukindde ganera, amak-eta sekula ez otsuen esan goserik paseu zenduenik?

- Ez, ez, ez. Gosie eurek bai. Gerraostien eurek bai, pasau eben, eurek bai honbre! Arroza ta arroza ta arroza ta arroza jan, arroza ta lentejie.

- Baia ortuaridxe-eta beti ez zien falteko...

- Bai, baiña gerra denporan ordun momentun, biharrik ezin eiñ kanpun, txarrena hori egon zan. Ta garidxe erain biher, garidxe erain biher, eta gabaz, gabaz garidxe eraitten. Pentsau zelan ibilko zin isilik, zelaku gari-eraittie eingo eben. Ta gero artorik-eta be ezin erain. Gero bai, gero behin martxan jarritte bai, baiña ordun momentun txarto, bai. Akordetan na, ama difuntik esaten eban: "arrozaz ya beteta na!". Arroza ta lenteji edo ez dakitz ze izeten zan, eta beti geuza bat beti geuza bat, zozer jan ein biherko eben-ta. Bueno etxin eukiko eben ordun be porruk-eta egongo zin ortuaridxen, baiña momentun derrigor egon biher zen estutasune. Gero gerra denporatik esaten eban etorritte danak, zelaidxe guztidxe-eta danak, danak bedarrak behetik gora-ta.

10. Ondarroatik Markinara ikatza garraiatzen

- **Erref:** OND-010/020
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:29:02. **Bukatu:** 00:31:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Bere aitikak Ondarroatik Markinara itsasoz heldutako ikatza eramaten zuen behia kargatuta. Hortik ere diru apur bat lortzen ei zuten. Auzoko asko arrain-fabriketara joaten ziren.

Transkripzioa

Bizitza gogora. Hasierie, osake, hasierie porejenplo ba gizonak be osake, nire atxitek-eta bolantiaz ganauekin juten zin iketza eruten Ondarrutik iketza Markiñara-eta eruten, ta esaten eban tente lo, behidxen atzetik tente lo. Ta estutasune pasau eben ordun be. Diru apur bat orduntxe esku artin ein ta harek gizonezkuk biharrera juteko, amak esaten eban: "Jo ta apurtu gerridxe ta zerin bedarrak ebai ezinda". Ta negu izen ei zen ona, espeziala ordun, holako negu epel-epela ein ein zeban ta bedarra etor zinin honarte, sagar-arbolak be danak tapaute, ta bedarra ebai biher ta bedarra ebai biher, ta zozer. Ta gero hasi ba behin hasittekun bakizu.

- Ekarten biene iketza Ondarrutik Markiñera zer zan, barkuen ekartzen biena?

- Barkutik ekarten eben, bai.

- Markiñera zetako ba iketza?

- Ba nonora osake erungo eben, porejenplo erute eben horra karmeliteta-edo, ez dait nora eruten eben.

- Ta zetako ba?

- Ba sue eitteko! zetako biher izengo eben ba? sue eitteko, iketzak gastaten eben harek karmelitak be. Goikuk ez daitz, baiña behekek be bai ta bai iketza ez dait nik, behintzat bakitz kargeten ebena, haidxe esaten eben-ta. Bolantie euken haundidxe eta ganauekin haradxe juten zin, juten ei zin, ze nik ez neban ikusi-ta. Hantxe diru apur bat eta bakizu. Ordun ondio Ondarrun be arrastreruk baeuezen, baiñe gero urtietan egon zinin bestik eta arraiñik be ez dait ba nik, hainbeste hainbeste pagaten zanik edo ez dait nik. Antxoa sasoi-eta bai erosten zin, ta gero bakizu, askok antxoatan be juten zin antxobieie antxoai buru kentzen-ta, niri neuri ez gasten gertau izen, baiña han auzokuk-eta juten zin. Bai, diru apur bat eitteko eta erropak-eta eitteko-ta, antxoa denporan juten zin, bai juten zin.

- Zuen familidxe itsosora ez zan jun sekule? Portuko biherretan-edo?

- Ez. Bai semi, semi ibil zen, semik eitten eban estudidxau ta portun, portun kamionak kargau gero ta estudidxau ta horretan ibili zen. Mekaniko ibil zen estudidxetan eta horreta ibil zen bai, estudidxau be bai ta biharra be bai, bidxek.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com